

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak Estatuari urtero egiten dion ekarpenaren ordainketa osatu du finkatutako behin-behineko azken ekarpenaren arabera

Urteko laugarren eta azken ordainketarekin, Nafarroak Estatuari 520 milioi euroko ekarpena egin dio 2016an

Ostirala, 2016.eko abenduak 30

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari Mikel Aranburuk prentsurrekoan gaur jakinarazi duenez, Nafarroak Estatuari urtero egiten dion ekarpenaren laugarren eta azken ordainketa egin du abenduan, 60 milioi euro, guztira. Zenbateko hori aurrez egindako hiru ordainketari gehitu behar zaie (153 milioikoa bakoitza), martxoan, ekainean eta irailean egindakoak. Beraz, Nafarroak Estatuari 520 milioi euroko ekarpena egin dio 2016an.

2016. urtearen amaieran 2015-2019 bosturtekoa eguneratu gabe, Nafarroak diru-sarrera guztia egin du finkatutako behin-behineko azken ekarpenaren arabera, eta Hitzarmen Ekonomikoaren Legearen 63.2 artikuluan agintzen den moduan. Nolanahi ere, gogora ekarri behar da, Hitzarmen Ekonomikoaren Legearen artikulua berari jarraiki, hala egindako ordainketak "kontura" egingo direla; hala, Administrazio baten edo bestearen alde izan daitezkeen diferentzien likidazioa eta diru-sarrera egin beharko da aztertzen den ekitaldiari dagokion ekarpen likidoa zein den jakin bezain laster.

Aranburu kontseilariaren iritziz, Nafarroak "negoziazioarekiko konpromiso irmoari eusten dio, 2015-2019 bosturtekoaren eguneratzea Estatuarekin arintzeko nahia adierazi du, eta 2015 urtearen nahiz 2016 aren behin betiko likidazioa egin dadila. Izan ere, ekarpenaren finkapenean dagoen behin-behinekotasunak Nafarroari egiten dio kalte bereziki, Foru Komunitateko Aurrekontuan zenbateko pisu espezifiko duen kontuan hartuta", adierazi du gaur eguerdian kontseilariak eman duen prentsurrekoan.